

ZURI ZUHAITZETARA IGOTZEA GUSTATZEN ZAIZU? IPUINAREN IRAKURKETA AURRETIK HAURREKIN SOLASEAN

Fitxa honek “Ez gara Jaitsiko!” liburuarekin hasi aurretik lantzeko proposamen bat luzatzen du. Zergatik aurretik? Liburuko abentura eta edukietan murgiltzeko eta probetxu handiena ateratzeko norberaren errealitatea aintzat hartzea egokiena dela uste dugulako.

Aukera badago, **jarduera kanpoan egitea proposatzen dugu, patioko edo inguruko zuhaitz baten ondoan**, lurrean borobilean eserita. Prozesu guztia **harreman dialogiko** batetik egiten saiatuko gara.

1. Lehenengo pauso bezala ikasleei ezagutzen dituen zuhaitzak aipatzea proposatzen dugu:

- Zuen inguruan, non daude zuhaitzak?
- Ezagutzen dituzuen zuhaitz horiek, nolakoak dira?

Ez gara ari “gaztainondo, pago, haritz, urki..” aipatzeaz, baizik eta beste mota honetako erantzunez:

- Ikastolako patioan daude zuhaitzak. Txikiak/handiak dira, politak, zaharrak... Aspaldi landatu zituzten, ikasle batzuk pasa den urtean landatu zituzten...
- Kalean, espaloietan zuhaitzak daude. Gazteak/zaharrak, politak, txikiak... Oztopo egiten dute, itzala ematen dute...
- Herriko parkean zuhaitz pila/gutxi dago, handiak dira.. Itzala ematen dute, xomorroak dituzte, bertan txoriak bizi dira...
- Mendian ikusten ditut zuhaitzak. Gurasoekin/lagunekin/taldean joaten naiz... Ongi pasatzen dugu/nekutzen naiz/aspertzen naiz.



Euren inguru eta errealitatearen araberako egoerak identifikatzen saiatuko gara. **Beste herrietatik datozen haurrak baditugu, beraiei espazioa erraztuko diegu, behartu gabe, beraien herri eta errealitate horietako zuhaitzen eta inguruaren ezaugarriak aipatzeko.**

Zuhaitz baten ondoan bagaude, berarekin zentzu desberdinak erabiliz harremantzeko aukera aprobe-txatuko dugu: begiekin aztertuko dugu, ikuitu egingo dugu; usaindu, nahi izanez gero besarkatu... Haurrak zuhaitza zentzu desberdinak erabiliz aztertzerantz animatuko ditugu, eta euren sentsazio eta emozioetan arreta jartzera animatu (Adibidez, zuhaitzaren azala lehuna/lakarra/fina/lodia... da eta niretzat ikutzea atsegina/desatsegina/berezia/da hozkirria ematen dit...). Gero borobilean zuhaitza elkarrekin deskribatzen saiatuko gara, eta sentitutako gauzak ere aipatuko ditugu. Deskribapena "adostu" daiteke (eta elkarrekin aberasten joan), baina sentsazio eta batez ere emozioak subjektiboak dira eta zentzu horretan onargarri eta egiazko dira denak. Zuhaitz bat baino gehiago egonez gero, bakoitzak bat aukeratu dezake zergatia konpartituz.

Kalera atera ezin bagara, inguruko parke, mendi, kale eta zuhaitzen argazkiak erakutsi ahal dizkiegu eta honako galderak luzatu:

Horrelako lekuak ezagutzen dituzue? Zeintzuk bai/zeintzuk ez? Zeintzuk nahiago dituzue? Zergatik?

Hona hemen argazki mota posible batzuk:



* Honen helburua da umeen errealitateekin lotura egin ahal izatea bizi izan ditugun aurreko esperientzietatik sortzen zaizkigun emozioak azalertzeko. Horretarako, irudiak ikustearekin batera, planteatu ahal diegu umeei:

Zer egin daiteke horrelako leku batetan?

2. Emozioen lanketa ere egiten saiatuko gara

Hurrek aipatu dituzten lekuak abiapuntu hartuko ditugu. Honako galderak egin ahal ditugu:

- Gustatzen zaizkizue aipatu dituzuen leku horiek?
- Zer egiten duzue bertan zaudetenean? Zer da gehien gustatzen zaizuena? Eta gutxien gustatzen zaizuena?
- Nola sentitzen zarete horrelako lekuetan zaudetenean. Berdin udan zein neguan? Berdin lagunekin edo bakarrik?

Gu geuk ere adibideak eman ditzakegu, hala nola:

- “Nire etxe ondoan parke bat dago, Nik txakurra dut eta berarekin bertara joatea gustatzen zait. Nire txakurra askatzen dut eta korrika egiten dut eta oso ongi pasatzen dugu, baina beldurra dioten umeak daudenean lotu egiten dut txakurra”.
- “Ikastolako nire txokorik kuttunena zuhaitz hori da. Zuek jolas-garaian zaindu behar zaituztedan, bero egiten duen egunetan, itzala ematen dit”.
- “Mendira bakarrik euria egin ez duenean joaten naiz, ez zait ezer gustatzen lokatzarekin zikintzea, bestela gero etxean zapata horiekin sartzea desastre bat da”.

* Honen helburua da umeek beren benetako emozio eta bizipenak partekatu ahal izatea, atseginak zein ez atseginak. “Erantzun zuzena”-ren dinamikarekin hautsi nahi dugu. Ez ditugu zalantzan jarriko emozioak, denok ez baitugu harreman bera naturarekin, eta ez ditugu gustuko gauza berak. Eta egokia ikusten badugu azaldu dezakegu emozioak ez direla “onak” edo “txarrak”, guretzat garrantzitsua den informazio bat ematen digutela, eta beraz kontutan hartu behar ditugula.



3. Hirugarren pauso batetan gatazka kognitiboa sortzen saiatuko gara.

Liburuko lehen irudira joango gara, Marimototsena zuhaitz gainera, eta umeen arteko eztabaida sortzeko asmoz, honakoa galdetuko diegu:

Zuhaitz batera igo da Marimo: hori egin daiteke? Ongi dago hori egitea? Zergatik?

Ziurrenik ume batzuek baietz esango dute, beste batzuk ezetz. Arrazoiak entzungo ditugu. Eta gure eskolan zuhaitzak badaude, aipatuko dugu zuhaitz horien kasuan zer esaten dugun eskolan egin behar dela eta zergatik, arauen gaiari helduz beharrezkoa bada. Landu dezakegu ere bai erantzuna egoeraren arabera ere aldatu daitekela. Adibidez:

*Adinaren arabera arriskutsuagoa izan daiteke zuhaitzetara igotzea.
Norbaitek mina egin dezakela ikusten baduzu, zer egin beharko genuke?*

Zuhaitzak txikiak direnean, edo ezin dutenean pisu asko hartu, bertara igotzen bagara puskatu ditzakegu eta kaltetu. Zuhaitzak oso handi eta sendoak direnean desberdina izan daiteke.

Adibide horrekin zaintzaren gaia landu dezakegu: pertsonak zaintzea garrantzitsua da, zuhaitzak zaintzea ere bai. Horrek arduraz jokatzeko eskatzen du: norberarekiko, besteekiko, naturarekiko.

Talde eta eskola bakoitzean gauza desberdinak aterako dira.

*Eta orain, ikus
dezagun zertan ari diren ba gure lagunak!*

*** Jarduera hau egin eta gero, liburuaren irakurketarekin hastea proposatzen dugu. Hurrengo fitxan eskaintzen ditugu irakurketarako hainbat iruzkin. Irakasleei fitxa hori umeekin irakurketa hasi aurretik irakurtzea gomendatzen dizuegu.**

Fitxa didaktiko hauen edukia honako lantaldeak osatu ditu:

- Libe Narvarte Eguiluz, Alboan Fundazioa, Hezkuntza teknikaria
- Ariane Paredes Palacín, Alboan Fundazioa, Hezkuntza teknikaria
- Oihana Orkolaga Fernandez, Cristina Enea Fundazioa, Hezkuntza teknikaria
- Edurne Ugarte Nieto, Irakaslea, Ingurumen Hezkuntzako aholkulari pedagogikoa Ingurugelan
- Mikel Barcenilla Álvarez, Irakaslea, Ingurumen Hezkuntzako aholkulari pedagogikoa Ingurugelan

Laguntzailea:

